2026ZAUN0121

IRUNEN UR JOLASEN EREMU BAT SORTZEKO ALTERNATIBEN AZTERLANAREN KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DE ESTUDIO DE ALTERNATIVAS Y ANTEPROYECTO PARA LA CREACION DE ZONAS DE JUEGOS DE AGUA EN IRUN

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	OBRA, MANTENTZE ETA AZPIEGITURA ARLOA / AREA DE OBRAS, MANTENIMIENTO E INFRAESTRUCTURAS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2026ZAUN0121

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen zuzeneko xedea da IRUNEN UR JOLAS BATZUK SORTZEKO ALTERNATIBEN AZTERLANA ETA AURREPROIEKTUA IDAZTEKO ZERBITZUAK ematea plegu honen eta kontratuaren baldintza ekonomiko administratiboen pleguaren arabera.

2.- EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIPZIOA

Hiri-bilbean integratutako ur-txorroten parkeak aire zabaleko babesleku klimatikoak dira eta, gaur egun, Irunek ez dauka horrelakorik.

Kontratu honen xedea da ALTERNATIBEN AZTERLAN bat egitea, hirian haurrentzako ur-jolas interaktibo eta sakonerarik gabeko batzuk ezartzearen bideragarritasuna eta azterketa tekniko-ekonomikoa egiteko, hirian beroaren efektuak arintzeko. Aukeratutako soluzioa hautatu ondoren, haren definizioa zehaztu beharko da, AURREPROIEKTU mailan.

Alternatiben azterlanari dagokionez, esleipendunak Udalak proposatutako zenbait kokalekuren egokitasuna aztertuko du. Gainera, egokitzat jotzen dituen beste espazio batzuk ere proposa ditzake, irisgarritasuna, eskaria eta zerbitzuak kontuan hartuta. Preskripzio teknikoen pleguari erantsi zaio Udalak proposatutako kokalekuen planoa.

Gainera, proposatutako kokaleku bakoitzean, esleipendunak Udalaren saneamendu- eta hornidura-azpiegituren egoera eta gaitasuna aztertuko ditu, baita hargune elektrikoen presentzia ere.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto directo de este contrato es la prestación de servicios con arreglo a lo dispuesto en el presente Pliego y en el Pliego de Condiciones Económico Administrativas de este contrato, para la REDACCIÓN DE ESTUDIO DE ALTERNATIVAS Y ANTEPROYECTO PARA LA CREACIÓN DE UNA ZONA DE JUEGOS DE AGUA EN IRUN.

2.- DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS A REALIZAR

Actualmente, el municipio de Irun carece de parques de chorros de agua públicos integrados en el tejido urbano que sirvan como refugios climáticos al aire libre.

La presente contratación tiene como objetivo realizar un ESTUDIO DE ALTERNATIVAS, viabilidad y análisis técnico - económico para la implantación de una zona urbana de juegos acuáticos infantiles interactivos y sin profundidad que permitan mitigar los efectos del calor en la ciudad. Una vez se determine la solución elegida, se deberá proceder a la definición de la misma a nivel de ANTEPROYECTO.

De cara al estudio de alternativas, el adjudicatario deberá analizar la idoneidad de los diferentes emplazamientos propuestos por el Ayuntamiento, si bien podrá plantear otros espacios que considere más adecuados a tales efectos basados en criterios de accesibilidad, demanda y servicios. Se adjunta al PPT planos con las distintas ubicaciones propuestas por el Ayuntamiento.

Asimismo, para cada una de los emplazamientos propuestos, el adjudicatario deberá analizar el estado y la capacidad de las infraestructuras municipales de saneamiento y abastecimiento existentes, así como la presencia de puntos de acometida eléctrica.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: CJX1-AXQ6-DXPC-IOAK
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (09/11/2026 08:58 CET)

Ekipamendu berria proposatzean, baldintza hauek hartu behar dira kontuan:

a) Kontsiderazio orokorrak:

- Irisgarritasun-, mantentze- eta kontserbazio-irizpideak kontuan hartuta ezarriko da ekipamendua, dagoen espazioa optimizatuz, topografian integratuz eta paisaia sortuz.
- Beharrezkoak diren datu topografikoak kontrastatu beharko dira, eta kostua eskaintzen diren ordainsarietan sartu.
- Eguzki-argiaren azterketak: espazioaren orientazioa, eremu egutera eta laiotzen arteko oreka bilatzeko.
- Zuhurtziazko distantzia mantendu behar da etxebizitzen fatxaden eta gunearen artean, jolasak eta jende pilaketak eragindako zarata arintzeko.
- Inguruan oinarrizko zerbitzuak egotea, hala nola aparkatzeko tokia, garraio publikoa, jolasguneak eta komun publikoak.
- Indarrean dagoen hirigintza-araudiarekin bat etorri beharko du proiektuak, eta aplikatu beharreko legezko beste xedapenak ere bete beharko ditu.

b) Ur-jolasen eremuko kontsiderazio espezifikoak:

- Lotura fidagarria izatea ur, saneamendu eta elektrizitate sareekin.
- Zirkuitu hidraulikoaren tipologia: Azterlanak ura kudeatzeko dauden sistema guztiak aztertuko ditu, teknikoki eta ekonomikoki, alternatiba bakoitzean.
- Espazio berriak bete beharreko parametro guztiak bete beharko ditu jasangarritasunaren eta ingurumenaren aldetik, eta energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko.
- Ura tratatzeko eta desinfektatzeko sisteman azterketa, gai horren alorreko indarreko araudia betetzeko.
- Espazioaren segmentazioa, adin tartearen arabera (ur-testura suabeak jaioberrientzat, zorrota dinamikoak eta jolas interaktiboak haur koskorragoentzat).
- Banaketa irekia, ikuspegia mugatzen duen elementurik gabekoa eta gune itsuak saihestuta,

El nuevo equipamiento se planteará teniendo en cuenta los siguientes condicionantes:

a) Consideraciones generales:

- Implantación de equipamiento teniendo en cuenta los correspondientes criterios de accesibilidad, mantenimiento y conservación, optimizando el espacio existente, integrándose en la topografía y creando paisaje.
- Se deberán contrastar aquellos datos topográficos que sean necesarios, cuyo coste estará incluido en los honorarios ofertados.
- Estudios de asoleamiento: orientación del espacio con el fin de buscar un equilibrio entre zonas soleadas y zonas protegidas.
- Deberá guardarse una distancia prudencial respecto a las fachadas de viviendas para mitigar el ruido generado por el juego y la concurrencia.
- Disponibilidad en el entorno de servicios básicos como estacionamiento, transporte público, áreas recreativas y baños públicos.
- Las propuestas deberán ajustarse a la normativa urbanística vigente y a la cumplimentación de lo dispuesto en otras disposiciones legales que resulten de aplicación.

b) Consideraciones específicas de la zona de juegos de agua:

- Conexión fiable a la red de agua, saneamiento y electricidad.
- Tipología de Circuito Hidráulico: El estudio deberá evaluar técnica y económicamente la totalidad de los sistemas de gestión de agua existentes en cada una de las alternativas.
- El nuevo espacio deberá cumplir con todos los parámetros exigibles a nivel de sostenibilidad, ambiental, de ahorro y eficiencia energética
- Análisis de sistemas de tratamiento y desinfección del agua para cumplimiento de normativa vigente al respecto.
- Segmentación del espacio en zonas por rangos de edad (texturas de agua suaves para bebés, chorros dinámicos y juegos interactivos para niños mayores).
- Distribución abierta, sin elementos que bloqueen la visión y evitando puntos ciegos con el fin de garantizar una buena visibilidad del área de

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: CJX1-AXQ6-DXPC-IOAK

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (09/11/2026 08:58 CET)

jolas eremuan guztiek ingurua ondo ikusten dutela bermatzeko.

- Akabera irristagaitzen azterlana; erresistentzia handikoak izan behar dira, eta mikrobiologikoki egokiak oinutsik dabiltzan erabiltzaileentzat (aplikatu beharreko araudien arabera).

- Europako UNE-EN 17232 araua betetzea (erabilera publikoko ur-jolasen ekipamenduetarako espezifikoa), baita aplikatu beharreko gainerako lege-xedapenak ere.

3.- LANEN GARAPENA ETA EDUKIA

Lana jarraian azaltzen diren faseetan egingo da.

3.1) ALTERNATIBEN AZTERKETA

Fase honetan, beharrezko datuak bilduko dira, beharren eta balizko erabiltzaileen hasierako diagnostikoa egingo da eta bildutako agiri guztiak aztertuko dira.

Biltzen diren datu guztietan oinarrituz, behar eta alternatibak aztertu beharko dira, aukeratzen den irtenbide bateratua garatzeko jarraibide zehatzak finkatzeko behar bezain xeheki.

Hori guztia alternatibak aztertzeko dokumentu batean jasoko da, eta Udalari ale bat emango zaio, aztertu dezan eta soluzio bat hauta dezan.

Gutxienez, hiru alternatiba aurkeztuko dira, bakoitzerako alderdi hauek aztertuta:

- Proposatutako kokalekuaren abantailak eta desabantailak.
- Proposatutako zirkuitu hidraulikoaren tipologia eta hura aukeratzeko justifikazioa.
- Ura tratatu eta desinfektatzeko proposatutako sistemaren tipologia eta hautaketaren justifikazioa.
- Hornidura, saneamendu eta elektrizitateko harguneen gaineko eraginak
- Inplikazioak, ekipamendu hauen jarduerari aplikatu beharreko araudiek ezartzen dituzten betekizunei dagokienez.
- Alternatibaren kostuaren aurrekontu zenbatetsia.

Azterketa-prozesu horrek dirauen bitartean, ez da zenbatuko kontratatutako lanak egiteko epea.

juegos.

- Estudio de acabados antideslizantes de alta resistencia e idoneidad microbiológica para usuarios descalzos (según normativas aplicables).

- Cumplimiento de la norma europea UNE-EN 17232 (específica para equipamientos de juegos acuáticos de uso público) y demás disposiciones legales que resulten de aplicación.

3.- DESARROLLO Y CONTENIDO DEL TRABAJO

El trabajo se desarrollará siguiendo las fases que a continuación se reseñan.

3.1) ESTUDIO DE ALTERNATIVAS

En esta fase se realizará toda la toma de datos necesaria, el diagnóstico inicial sobre las necesidades, y potenciales usuarios y se estudiará toda la documentación existente.

Con todos los datos obtenidos, se realizará un estudio de necesidades y de alternativas con el grado de detalle suficiente para marcar las directrices concretas para el desarrollo de la solución conjunta a adoptar.

Todo ello se recogerá en un documento de Estudio de Alternativas del que se entregará un ejemplar al Ayuntamiento, para poder realizar el análisis del mismo y determinar la solución elegida.

Se deberán de presentar al menos 3 alternativas diferentes, analizando en cada una de ellas los siguientes aspectos:

- Ventajas y desventajas ubicación propuesta.
- Tipología de Circuito Hidráulico propuesto y justificación de la elección del mismo.
- Tipología del sistema de tratamiento y desinfección del agua propuesto y justificación de la elección del mismo.
- Afecciones a las acometidas de abastecimiento, saneamiento y electricidad.
- Las implicaciones en cuanto a los requisitos impuestos por las diferentes normativas que regulan la actividad de este tipo de equipamientos.
- Estimación presupuestaria del coste de la alternativa.

Mientras dure dicho proceso de análisis, no se contabilizará el plazo de ejecución de los trabajos contratados.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: CJX1-AXQ6-DXPC-IOAK
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (09/11/2026 08:58 CET)

3.2) PROPOSAMENAREN GARAPENA

Egindako lanak ikusita, Udaleko zerbitzu teknikoek, esleipendunak aholkatuta, zer soluzio aukeratu erabakiko dute, eta zehaztu egingo da, AURREPROIEKTUA osatzeko bezainbat.

Hona hemen AURREPROIEKTUAK gutxienez eduki beharko dituen atalak:

a) Memoria eta eranskinak
b) Planoak
c) Aurrekontu zenbatetsia

Oro har eta salbuespenak salbuespen, dokumentu bakoitzak atal hauek izango ditu gutxienez:

a) Memoria eta eranskinak

Memoria:

- Proiektuaren aurrekariak eta xedea
- Aurreko azterketak
- Soluzioaren justifikazioa
- Aplikatu beharreko araudia.
- Aurrekontua
- Lanak egiteko epea

b) Planoak: Aurreproiektu bati dagozkionak, gutxienez, honako hauek dira:

- **Kokapen-planoa.** Eraikinak eta lur propioak eta mugakideak, bakoitzaren erabilerak eta inguruko bide publikoak mugatuta

- **Plano topografikoa,** ekipamendu berria eraikiko den azaleraren eta ingurunearen gaur egungo egoera islatzen duena.

- **Antolamendu- eta zolaketa-planoak** Kanpoko urbanizaziorako obrak zehazteko beharrezkoak diren planoak osatuko dira.

- **Xehetasunak.** Obrak aurreproiektu mailan zehazteko beharrezkoak diren xehetasunak jasoko dira.

c) Zenbatetsitako aurrekontua partida eta kapituluaren arabera

Aurreproiektua idatzitakoan, ale bat eman beharko zaio Udalari, behin betiko dokumentua prestatu aurretik, azter dezan.

3.2) DESARROLLO DE LA PROPUESTA

De acuerdo con los trabajos realizados, los Servicios Técnicos Municipales, asesorados por el adjudicatario, determinarán la solución elegida y se pasará a la definición de la misma a nivel de ANTEPROYECTO.

A continuación se exponen los diferentes apartados que deberá contener como mínimo el ANTEPROYECTO:

a) Memoria y Anejos
b) Planos
c) Presupuesto estimado

Con carácter general, y sin perjuicio de las excepciones que puedan existir, cada uno de estos documentos incluirá como mínimo los siguientes apartados:

a) Memoria y Anejos

Memoria:

- Antecedentes y objeto del proyecto
- Estudios anteriores
- Justificación de la solución
- Normativa de aplicación
- Presupuesto
- Plazo de ejecución

b) Planos: Los correspondientes a un anteproyecto que como mínimo serán los siguientes:

- **Plano de emplazamiento**. Se delimitarán los edificios y terrenos propios y colindantes, los usos de los mismos y las vías públicas inmediatas.

- **Plano topográfico** que refleje la situación actual de la superficie y el entorno donde se va a construir el nuevo equipamiento.

- **Planos de ordenación y pavimentación.** Se incluirán los planos necesarios para la definición de las obras de urbanización exterior.

- **Detalles**. Se incluirán los detalles necesarios para la definición de las obras a nivel de Anteproyecto.

c) Presupuesto estimado por partidas y capítulos

Una vez redactado el Anteproyecto, se entregará al Ayuntamiento un ejemplar, con carácter previo a la elaboración del documento definitivo, para su revisión.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: CJX1-AXQ6-DXPC-IOAK

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (09/11/2026 08:58 CET)

Udaleko zerbitzu teknikoek planteatzen dituzten aldaketa, gehikuntza eta erreformak kontuan hartuta prestatu beharko da aurreproiektuaren behin betiko dokumentua.

3.3).- LANAK AURKEZTEA

Dokumentu guztiak modu ordenatu eta zehatzean entregatuko dira, idazketarako eta marrazketarako kalitate oneneko paperean, eta neurriz kanpoko planoak edo erabiltzeko zailak direnak saihestuta.

Dokumentazio osoaren jatorrizko bi ale eta CD birproduzigarria aurkeztuko dira.

Planoak, gainera, AUTOCAD formatuan entregatuko dira, eta aurrekontua PRESTO edo BC3 formatu trukagarrian.

Era berean, alternatiben azterketaren eta aurreproiektuaren edukia herritarrei behar bezala ezagutarazteko, nolanahi ere, esleipendunak hiru dimentsioko infografiak eta aurreikusitako obraren deskribapen informatibo eta laburtua ere aurkeztu beharko ditu.

Konponbideak edo alternatibak aztertzeko fasean zein lanak egiteko proiektuaren fasean eskatu ahalko zaio dokumentazio hori.

Herritarrek parte hartzeko prozesuek irauten duten bitartean, kontratatutako lanak egiteko epeak ez du aurrera egingo, eta udalak esleipendunari behin betiko soluzioak jakinarazten dizkionean hasiko da berriro.

4. - PROIEKTUA IDAZTEKO TALDEA

Honako hauek osatuko dute, gutxienez, proiektua idatziko duen taldea:

- Alternatiben azterlanaren eta proiektuaren idazlea, lan hauetarako gaitutako goi-mailako teknikaria

Bost urteko esperientzia izango du, gutxienez, antzeko proiektuak idazten.

Titulazioak aipatutakoak izango dira, edo goi-mailako hezkuntzarako gaikuntzen Espainiako esparruko baliokideak, eta dagokion unibertsitate-agintaritzak ziurtatuak izango dira.

Esleipendun gertatzen den aholkularitza-enpresak ezin izango du alde batera utzi proposaturiko taldeko kiderik, ez eta beste batez ordezkatu ere, kontratuaren arduradun teknikoak onetsi gabe.

Atendiendo a las modificaciones, ampliaciones o reformas que se planteen desde los Servicios Técnicos Municipales, se elaborará el documento definitivo del Anteproyecto

3.3).- PRESENTACIÓN DE LOS TRABAJOS

Todos los documentos se presentarán en forma ordenada y concisa sobre papeles para escritura y dibujo de la mejor calidad, evitándose planos de tamaño desproporcionado o de difícil manejo.

Se presentarán 2 ejemplares originales y CD reproducible con la documentación completa.

Los planos se entregarán además en formato AUTOCAD y el presupuesto en formato PRESTO o BC3 intercambiable.

Igualmente, para la adecuada comunicación a los ciudadanos del contenido del estudio de alternativas y el anteproyecto, el adjudicatario deberá también, en todo caso, presentar infografías en 3D, y una descripción informativa y resumida de la obra prevista.

Dicha documentación podrá ser requerida al adjudicatario tanto durante la fase de análisis de las soluciones o alternativas, como durante la fase de proyecto de ejecución.

Durante dichos procesos de participación ciudadana, el plazo de ejecución de los trabajos contratados se detendrá, retomándose una vez se comunique al adjudicatario desde el Ayuntamiento las soluciones definitivas adoptadas

4.- EQUIPO REDACTOR.

El equipo redactor deberá estar compuesto como mínimo por:

- La o las persona/s autora/s del estudio de alternativas y del Proyecto, Técnico Superior competente para este tipo de trabajos

Deberá tener como mínimo 5 años de experiencia en la redacción de proyectos similares.

Las titulaciones podrán ser las mencionadas o sus equivalentes del Marco español de Cualificaciones para la Educación Superior, y estarán certificadas por la autoridad universitaria correspondiente.

La empresa consultora que resulte adjudicataria no podrá prescindir de ninguno de los integrantes del equipo redactor propuesto, ni sustituirlo por otro sin la aprobación del Responsable Técnico del Contrato.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: CJX1-AXQ6-DXPC-IOAK
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (09/11/2026 08:58 CET)

Laguntzaileak proiektuaren egilearen enpresa berekoak edo beste batekoak izan ahalko dira. Beste enpresa batekoak badira, laguntza emateko konpromisoa hartzeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

Los/as colaboradores/as podrán pertenecer a la misma empresa que la persona autora del proyecto o no, en cuyo caso deberán presentar su declaración de compromiso de colaboración.

Kontratuak irauten duen denbora guztian mantendu beharko da eskaintzan aurkeztutako taldea.

La participación del equipo presentado en la oferta deberá de mantenerse a lo largo de todo el contrato

Proiektua idazteko adskribatu beharreko **gutxieneko lantaldearen** osaera aurkeztu beharko da, curriculum vitaea eta antzeko lanetan duten esperientzia eta prestakuntza zehaztuta. Era berean, berariaz, kide bakoitzak bete beharreko funtzioak eta aurreikusitako dedikazioa adieraziko dira. Lantaldearen egitura eta osaera konpromiso formaltzat hartuko da, esleipendun gertatuz gero.

Se presentará la composición del equipo humano **mínimo exigido** y que se va a adscribir a la redacción del proyecto, con detalle relativo a su curriculum vitae, experiencia y cualificación en trabajos similares. Así mismo, se indicarán expresamente las funciones a realizar y la dedicación prevista. La estructura y composición del equipo de trabajo, se entenderá como un compromiso formal, en caso de resultar adjudicatarios.

5.- INGURUMEN IKUSPEGIA

A)- Kontratua gauzatzerakoan, minimizatu egin behar da laguntza teknikoak berak ingurumenean duen inpaktua:

- Ahalik eta dokumentu gutxien inprimatuko da.
- Paper birziklatua erabiliko da.
- Behar-beharrezkoa den materiala bakarrik erosiko da, ahalik eta soberakin eta hondakin gutxien sortzeko.

B) Aurreproiektua idazterakoan, ingurumen-ikuspegia kontuan hartu beharko da, eta neurri hauek edo antzekoak hartu:

- Diseinu estandarreko materialak erabiliko dira, eta hainbat urtetan erabiltzeko modukoak.
- Lehengai eta materialak ahal bezainbat berrerabiliko dira, hala nola eraisketa- eta indusketa-lanetako hondakinak eta azaleko geruza begetala, betiere aplikatu beharreko araudia eta bete beharreko kalitate-estandarrak betetzen badituzte.

5.- PERSPECTIVA MEDIOAMBIENTAL

A) En la ejecución del contrato se deberá minimizar el impacto medioambiental de la propia asistencia técnica:

- Reducción del número de impresiones ajustándolas al máximo.
- Utilización de papel reciclado.
- Compra de material en las cantidades estrictamente necesarias para minimizar los excedentes y reducir la generación de residuos.

B) En la redacción del anteproyecto se deberá tener en cuenta la perspectiva medioambiental, incluyendo medidas tales como:

- El uso de materiales con diseños estándares y disponibilidad durante varios años.
- La máxima reutilización de materias primas y materiales como por ejemplo los residuos de demoliciones, excavaciones o la capa vegetal superficial, siempre que se cumplan tanto la normativa aplicable como los estándares de calidad requeridos.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: CJX1-AXQ6-DXPC-IOAK
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (09/11/2026 08:58 CET)